




PINTURA



PINTURA

- Barroko garaian **pinturak gorenko maila** lortuko zuen. Italiak adierazpen naturalista zela medio jarraitu zuen aurreko mendean zuen nagusitasun artistikoa izaten, baina European zehar kalitate handiko **eskola nazionalak sortu ziren**.

- Gai **erlijiosoek Kontrarreformako baloreak gorensten** jarraitu zuten, baina bien bitartean, **genero-pinturan, eszena errealistak**, barrualdekoak eta egunerokoak nagusitu ziren Holanda luteranoan; **eszena alegoriko eta mitologikoen** bitartez noblezia eta gortearen gustoa islatuko zen; bestetik **pintorearen beraren irudia** ere gogoeta-gai bilakatuko zen.

Ezaugarri orokorrak

- **Naturalismoa**: Gauzak diren bezala irudikatu nahi zituen, **idealizatorik gabe**, ederragotu gabe. Ez zien, probetasunak, akatsak, itsusitasunak, beldurrik eragiten. Eguneroko bizimoduarekin lotzen diren eszenak errepresentatzen zituzten sarri. Errealismo bilatze horretan, batzuetan, efektismo eta teatraltasunean eroriko ziren.

- **Askatasun osoa krapen prozesuan**: arte espontaneo da, ez da kanonen menpe egongo, sentiduak piztu nahi ditu.

- **Dinamismoa, mugimendua**: Gelditasun klasikoaren aurrean, **konposizio desorekatuak**; sarritan elementuak obra guztia gurutzatzen duen **diagonal** baten arabera antolatzen ziren. **Gai nagusiaren desplazamendua**.

- **Argia arazo tekniko nagusia bihurtzen da**: Argiaren bidez **objektua sortu** edo ezaba daiteke, baita ere, sakontasun **plano desberdinak** sortu. Pertsonajeen garrantzia edo **konposizioa** argiaren fokoak eragiten du:

a) Hasieran **tenebrismoa** nagusituko da: kanpotik datorren argi-foku baten argitan baleude bezala errepresentatzen dituzte irudiak. Formak argi bortitzez eta itzal kontraste biziz margotuz.

b) Gero eboluzioa emango da: **airetiko perspektiba** deiturikoa lortu arte : Errealitatean pertsonaje eta objektuen artean airea eta argia izaten da eta horrek formen zehaztasun xehearen galtzea eramaten du, hori dela eta atmosfera pintatuko dute: aireko perspektiba.

- **Arte ilusionista** izango da: Engainu optikoak, perspektiba bukagabeak eta faltsuak, eszenatoki handiak, materialen imitazioa: marmolak...

- **Kolorismoa**: Orokorrean kolore gutxi erabiltzen dute, baina ñabardura kromatiko askorekin. Arte bizia denez gero, kolorista izango da.

- **Teknika** : **Kolore orbanaren nagusitasuna**, lerro eta marrazkiak galdu egingo du Errenazimentuan zuen garrantzia orain **nagusitasun teknikoak koloreari** emango zaio . Kolore orbanak formak eta ingeradak definituko dituzte, eta pintzelkada gero eta zabalagoa egingo da, iheskorra batzuetan, oretsua edo lodia bestetan, gero eta solteagoa

Pintura teknikei dagoikonez: **freskoa** erabiltzen jarraitu zuten, bereziki jauregi eta elizen apaintetan; tenplea baztertu zen; baina batez ere, **mihise gaineko olioak** erabili zuten.

- **Gaiak** :

- **Genero-pintura** edo **ohitura-pintura** (eguneroko bizimodua irudikatzen duena).

- **Gai mitologikoak**, indar handia hartuko dute, bereziki jauregien apaintetan

- **Erretratuak**

- **Paisaiak** : gai independente bezala .

- **Bodegoiak** edo natura hilak.

- **Erljiosoak**, honek ez zuen garrantziarik galduko, kontrarreformatik artea fedearen propaganda bezala erabiliko zuelako: Santuen bizitzak eta martirioak, Ama Birginarekin erlazioatutako gaiak..., hedapen handia izan zuten, sarritan ikuspegi patetikoenetik ikusita, ikuslearen sentimendua pizteko.

ITALIA

- Manierismoa eta pintura veneziarra geroztik, XVII. mendean, **bi joera** sortu ziren pinturan: **errealismoa** eta **eklektizismo klasizista**. Errealismoaren ordezkari Caravaggio izango zen.

Caravaggio (1573-1610)

- **Pintura naturalistaren adierazgarririk nagusia** izan zen. Errenazimentuko edertasun idealarekin hautsi eta eguneroko errealismoa irudikatu zuen. Bere **eskortzo gogorreko konposizioetan, argien eta itzalen kontrasteak** erabili zituen, efektu handia sortuz; **tenebrismo** bezala dira ezagunak kontraste hauek.

- **Argilunaren arazoan aztertzaile** handia izan zen: **tenebrismoaren sortzaile** izango da: argi hau **argi eta itzalen kontraste handikoa**, foku bat balitz bezala erabiliko da, konposizioak eta formak sortuz, koadroaren azentuak, erritmoa, garrantzizko zonak eta konposizio guztia antolatuko ditu.

- *Baco* : Berlin

- *S. Mateo-ren bokazioa*: S. Luis eliza Erroman.

- *S. Pablo-ren konbertsioa* :St^a Maria dil Popolo (erroma)

- *S. Pedro-ren martirioa*: St^a Maria dil Popolo

- *Ama birjinaren heriotza* (Louvre)



Baco



S. Mateoren konbertsioa



S. Pablo-ren konbertsioa



Ama birjinaren heriotza

- Joera klasizistaren jarraitzaileak Carracci anaiak izango dira:

Anibale Carracci

- Gai mitologikoak eta alegorikoak landuko ditu nagusiki.
- Fresko teknika erabiliko du , bereziki jauregien dekorazioan.
- Edertasun ideala.
 - *Farnesio jauregiaren freskoak.*
 - *Egiptorako ihesa.*



FLANDES

- XVI. mendearen bigarren erdialdeko Herbereetako Independentzia gerren ondoren, Flandes **Espainiako errege austriarren nagusitasun politikoaren mende** egongo zen. Flandesko biztanle gehienak **katolikoak** izateak, erabakiorrak izan ziren **pintura erlijiosoak garrantzitsua** izateko.

- Hala ere , Flandesko pintura tradizionalari eta alboko Holandak bizi zuen eboluzioari oso loturik, Europako pinturan agertu ez ziren gaiak erabili zituzten, burgesiari atseginak zitzaizkion gaiak: ohitura edo **genero-eszenak**, nekazarien bizitza eta tabernetakoak, **natura hilak, paisajeak eta erretratuak...** Guztiak **zehaztasun izugarri zirenak**.

- Flandestar katolikoek nortasunaren irudia izango da bertan egingo den pintura, nederlanderren zorrotasun puritanoen aldean.

Pedro Pablo Rubens (1577 -1640)

- Anberesen famili aberats batean jaiotako Pedro Pablo Rubens izango da **Flandesko pintorerik azpimarragarriena**, eta Europako barrokoan ezinbesteko artista, hil ondoren ere, **eragin handia** izango zuena.

- **Italian ikasiko zuen**, eta bertan **Veneziako pinturaren kolorearekiko zaletasuna** hartzeaz gain, bereziki Tizianorena, Carracci anaiak eta Caravaggio ezagutu zituen ; Espainian Velazquez ezagutu zuen.

- **Ospe handia lortu** eta **Europako gorte garrantzitsuenetan egin zuen lan**. Horretarako **ekoizpen-sistema bideratu zuen**, elementu jakin batzuk nola pintatu behar ziren ongi ikasia zuten laguntzaile askorekin. Halatan, zuhaitzak landuko zituen espezialista batek, paisaiak honakoak,zeruak

halakoak,,Rubensek prestatuak zirriborro, diseinu eta aginduei jarraiki. Azken ukitua emango zion Rubensek lan bakoitzari.

- **Pintzelkada handia** eta **kolore aberatsak**, argitsuak eta alaiak izan ziren bere estiloaren ezaugarriak; hauen bidez **forma biziak**, **oparoak** eta **dinamismo handikoak** pintatu zituen. Bere **figurak sentsualak** ziren, egiten zituen **biluziak haragitsuak**, oparoak jantziei zegokienean eta **konposizio konplexuetan** antolatzen zituen.

- Rubensek jakin izan zuen italiar eraginari, bereziki **veneziarren eragineko kolore beroei, Flandesko tradizio errealista** batzen.

- Sortu zuen tailerra zela eta lan ikaragarria egin zuen, gai mitologikoak, erlijiozkoak, paisaiak, erretratuak... landu zituelarik:

- *Gurutzetik jaitsiera.*
- *Erregeen adorazioa*
- *Leuciporen alaben bahiketa*
- *Bakanala*
- *Hiru Graziak*



Gurutzetik jaitsiera



Erregeen adorazioa



Leuciporen alaben bahiketa



Hiru Graziak

HOLANDA

- Pintura holandarren garai handia XVII. mendea izan zen. **Garapen ekonomiko ikusgarria** bizi izan zuen orduan herri gazte hark, **merkataritza-burgesia aberats baten eskutik**, eta ordura arte ezagutu ez zen moduan hazi zen bertako pinturaren eskaria. **Sortu ere egingo zen, gainera, artesaleroslearen irudia, artistaren eta bezeroaren arteko bitartekari gisa**. Baina artearentzat itxuraz horren ona zen testuinguru hura ez zen horren oparoa artistentzat, biziki apaldu baitziren artelanen prezioak eta, beraz, artisten bizi-maila, eskaintzaren munta handiarengatik eta salerosleen espekulazioarengatik. **Egoera honek bestetik, gai berriak garatzea** ekarriko zuen, **eta teknika azkarragoak** erabiltzea lana azkarrago egiteko

- Garai hartako **pintura holandarrak burgesia dirudunaren gustuei erantzun zien**, ez gorteko aristokraziaren gustuei, Europako beste lekuetan gertatzen ari zen bezala. Alabaina **ez zen goi burgesia arte-bezero bakarra, burges txikiek, merkatariek, laborariek, hiriko elkarte eta gremioek, konpaniek eta hirietako zaindarien ere erosiko baitzituzten** gisa horretako produktuak.

- Pinturaren **gai nagusiak** izan ziren **erretratua**, banakoa edo taldekoa, **genero-pintura**, eguneroko eszenak irudikatuko zituen, eta **paisaia**. **Kalbinismoak erlijio-irudiak debekatu** zituen, idolatrak zirelakoan, eta oso bakan baizik ez ziren horrenbestez erlijio-koadroak pintatuko, oso giro pribatuan beti ere.

- Bezeroaren eta irudiaren arabera izaten ziren **ohialen-formatuak: Erretratueta eta genero-margolan** burgeseetan txikiak edo ertainak izaten ziren bere etxeetan jartzeko zirelako. **Taldeen erretratueta formatu handiak**, hiriteako konpania, gremio eta ospitaleen egoitzetarako.

Rembrandt (1606 – 1669)

- Leyden-en jaio zen eta lehenengo ikasketak egin ondoren Amsterdam-era joan zen bizitzera. Bizitza osoa han igaro zuen, Rubens ez bezala, gizon sedentarioa izan baitzen. Amsterdam-en Saskya izaneko goi-burgesiako neska gazte batekin ezkondu zen, eta **arrakasta handia** lortuko zuen pintore bezala

1642an “Gaueko erronda” pintatu zuen, eta obra honen ondorioz, gizartea ordura arte bere lana estimatzen zuena, arbuiatzen hasi zen, pertsonaiei emandako tratamendua ez zelako bezeroen gustokoa izan.

- Saska hil zenean, behe-klaseko emakume bat, Hendrikje, agertu zen bere bizitzan, baina ezin izan zuen harekin ezkondu, Saskyaren testamentuak oztupoak jartzen zizkiolako. Horren guztiaren ondorioz, oso puritana zen gizarte kalbinista hartan, gaitzespena areagotu zen eta, ondorioz, bere negozioek porrot egin zuten. **Pobrezian bizi izan zen azken urte horietan egin zituen bere obra sakonenak eta pertsonalenak.**

- **Maisu handienetariko da argiaren eta kolorearen trataeran**, argilunaren eta kolorearen azterketan oinarrituz, era antinaturalean erabili zuen argia. **Kolore-orban lodiak** erabiltzen zituen eta **tenebrismoan oinarritzen zen**, baina argi eta itzalen arteko kontrastearen muga zehatzen ordeztu, **ertz difuminatuagoak** erabili zituen. **Koadroak gorrian prestatzen zituen**, honek **giro irreal eta fantastikoa** ematen ziolarik obrari. Maisu **izan zen baita distirak irudikatzen**. Argiaren bitartez baita, objektua “marraztea” eta koadroaren sakonera lortuko zituen.

- **Argiluna izan zuen espresatzeko erarik indartsuena**; argiaren tratamenduaren bidez **barnetasun sakona** eman zien bere lanei.


- **Kolore gutxi** erabiliko zituen: horia, okrea, beltza, **baina ñabardura aberats** bati esker **koloretasun bikaina** lortuko du.

- **Genero guztiak** landuko zituen, paisaiak (negukoak, tristeak), bodegoiak, baina baita gai mitologikoak eta erlijiosoak ere, emozio eta izpiritualtasun handiarekin eta oso lengoia pertsonala erabiliz. Bere obran **ugariak dira autoerretatuak**, ehun baino gehiago, baina bere obra garrantzitsuenak talde-erretatuak dira.

- *Ohialen sindikoak*: (Rijksmuseum)
- *Anatomien ikasgaia* : (Mauritshuis – La Haya)
- ★- *Gaueko erronda*: (Rijksmuseum)
- ★- *Judutar ezkongaiak* : (Rijksmuseum)
- ★- *Autoerretatuak*




Ohialen sindikoak



Autoerretatua (Viena)



Anatomien ikasgaia



Hendrickjen bainoa



Gaueko erronda



Ezkongai judua

Vermeer Delft-ekoa (1632-1675)

- Etxe burgesetako giro intimista hobekien azalduko duen pintorea Vermeer izango da. **Etxe-barruko irudiak** sortu zituen, eguneroko bizitza **soiltasunez eta poetikotasunez adieraziz.**

- **Konposizio soliletan** irudikatu zituen pertsonaiak , **bere eguneroko lanetan** buru-belarri , kanpoko **argiaren modulazio xumearekin** lortutako **giro atsegin eta lasaietan.**

- Obra gutxiko pintorea, 36 koadro bakarrik ez baitzaizkio ezagutzen, dirudienez enkarguz egiten zuen lan, eta agian beste autore batzuen lanen salerosle izan zelako.

- **Emakumea mahaian lotan:** (Metropolitan Museum- New York)


- **Amodiozko gutuna:** (Rijksmuseum)

- **Perlaren gaztea:** (Mauritshuis - La Haya)

- Jostuna: Louvre
- Esnegilea : Rijksmuseum)




Emakume mahaian lotan



Neska gutuna irakurtzen
(Dresde)



Perlaren gaztea



Esnegilea

ESPAINIA

- Politikan, Espainiak European zuen **nagusitasunaren gainbeheraren** lekukoa izan zen arren, pintura barroko espainarra duen garrantzia, kalitate eta eraginagatik, garai honetako arte-arlo bereizgarriena izango da. **XVII. mendea** da, zalantzarik gabe, **espainiar pinturaren urrezko mendea**. Nazioarteko artearen historiara pasa diren izan handiak garai honetakoak izango diralarik : Ribera, Zurbaran, Murillo, eta batez ere, gaineko guztien gainerik, Velazquez

- Espainiak **Kontrarreformaren aitzindari** gisa jokatu zuen paper garrantzitsuen poderioz, garai hartako bizimoduaren funtsezko atala eta osagaia izan zen **erlijioa**, eta huraxe, izan zen, hain zuzen ere, **gai nagusia**. Hala ere, Italian sortu eta European zehar zabaldua zeuden arte-moduak indar gehiagorekin iritsi zirelako batetik, eta garaiko pintore handien nortasuna bide zela bestetik, **gai**

erlijiosoak ere beste kalitate bat lortu zuen. Horrez gainera, **erretratuak, genero-pintura, natura hila** (bodegoiak) eta, **neurri txikiagoan, mitologia-gaiak** era landu ziren.

- **Hiru gune nagusi** bereiz daitezke garai hartako pintura espainiarrean: **levantearra, andaluza eta madrildarra.**

1- Levanteko gunea: Oso goizo sartu ziren Caravaggio-ren molde naturalistak eta tenebrismoa, eta Francisco Ribalta eta José Ribera “El Españoleto” maila handiko pintoreak azaldu ziren han.

2- Andaluziako gunea: Sevillan batez ere (une oparoenak bizi zituen hiri hark, bertatik bideratu baitzen Espainiaren eta Ameriketako kolonien arteko trafikoa), azaldu zen zer esan handia sorraraziko pintore multzoa: Zurbaran, Velazquez, Murillo, Alonso Cano eta Valdés leal.

3- Gorteari atxikiago garatu zen Madrilgo gunea, Carreño, Claudio Coello eta Herrera gaztea pintoreen eskutik.

Ezaugarriak

Gaiak :

- **Gai erlijiosoaren nagusitasuna**: Europako beste eskolekin konparatzen bada, tratatzen dituen gaien urritasuna nabarmentzen da. Arrazoia, pintura erlijiosoaren nagusitasuna, eta honen **helburu propagandista** izango dira. Aitzitik, eginbide honetan protestantismoak gaitzetsitako gaiak bereziki irudikatzen bultzauak ikusi ziren pintoreak: Ama birjinari buruzkoak, martirioak, mirakuluak, estasi mistikoak...

- **Pintura profanoa**: erlijiosoa bezain hedatua izan gabe, kontuan hartzekoa da:

- **Erretratu generoa urria izango da**, kompensatzen dena Velazquezen erretratu apartekin.

- **Genero-pinturan eredu ederrak**, bereziki tipo herritarren irudikapenean: pikaro, eskale...

- **Paisaiak eta gai mitologikoak gutxi landu ziren**, eta hemen ere Velazquez-en originaltasuna eta kalitatea aipatu behar dira.

- **Gai sentsualak ez dira landuko** berriro ere Velazquez-en salbuespenarekin.



Ispiluaren Venusa (Velazquez)

Teknika : Teknikari dagokionez **mihise-pintura erabat nagusitu zen**, formatu handiko koadroak izango dira.

- Mihisearekin batera **olio-pintura** hedatu zen, bi erataraz erabiliz:


1.- **Eginmodu tenebristan** hasieran, pintura pastosoa, jarraia eta lodiera berdinekoa, tonalitate lurkarak eta ilunak erabiltzen zituztelarik.

2.- Bigarren aldirian **teknika soltea, azkarra eta librea** nagusituko zen.

- **Estiloa** : **Errealismoa** nabarmendu behar da, gizabanakoen akatsak, edo martirioen garrantasuna, gordintsun eta indar guztiarekin irudikatzen dute.




Ume errena (Ribera)




S. Bartolomen martirioa (Ribera)

- **Oso garrantzitsua izango zen baita argiaren tratamendua, hasieran era tenebristan erabiliko zen, garai honetako ia pintore guztiak pasa baitziren tenebrismotik.** Horrek esan nahi du kanpotik zetorren argi-foku baten argitan baleude bezala pintatzen zirela koadroak, formak modu argi eta bortitzez eta itzalguneekiko kontraste biziz pintatuko dira.

Gerora eboluzioa hasi zen , errealitatean objektu eta pertsonaien artean airea eta argia izaten zirela ohartuz, eta argi horrek formei bere zehaztasun xehea galerazten ziela. Hori irudikatzeko, atmosfera pintatzen saiatu ziren: **airetiko perspektiba**. Bigarren aldiko pinturak, teknika hori menperatzen zuela erakusten du, eta Velazquez-ek gaur , oraindik ere, gainditu ez den maila lortu zuen **atmosferaren irudikapenean**.



Tenebrismoa



Airetiko perspektiba

- **Konposizioari ez zitzaion arreta berezirik eman, barrokoaren konposizio-modu diagonal jarraitzeko ez bazen.** Ribera eta Velazquezek, aitzitik, gehiago zaintzen zuten alderdi hau. Beste pintore batzuk, ordea, Murillo eta Zurbaran barne, pertsonaik elkarren ondoan jarriz osatzen dute koadroa, garrantzirik eman gabe konposizioari.

- Erreinuko finantza eta ekonomia-hiriburu bilakatu zuen Sevilla Indiekiko merkataritzak (gogoratu **Amerikako merkataritza guztia Sevillako portutik bideratzen zela**), eta Europako arte-gune nagusien pare jardun zuen mende hartan.
- Arte eta literaturarako interes bizia piztu zen Sevilla aberats hartan XVII. mendean, eta haien hiri aitzindaria izango zen luzaroan.

Francisco Zurbaran (1598-1664)

- Eskola hontako lehen pintore handia izan zen ,Extremaduran jaioa, Sevillako tailer batean ikasi eta bertan finkatu zen. Sevillan jasoko zuen **eragin tenebrista** nabarmena izango da bere obra guztian.

- Bi gai landu zituen nagusiki: **erlijioa eta natura hila**. Ama Birjina, Kristo, santu edo **fraideen** irudietan nahiz fruituak pitxer eta beste tresna batzuekin aurkeztu zituen natura hiletan, biziki deigarria da nola joko zuen beti goia, itxuraz **oso konposizio soil eta sinpleak** eskainirik, eta deigarria da halaber **zeinen fisiko eta eskultorikoak diren aurkeztu zituen irudiak** (lerro soil ximpleen bitartez lortzen zuen sentsazio hori ematea, unibertso geometrikotik oso hurbil ziren formak eskaintzen baitzituen).

- **Konposizio eta mugimendua ez ditu menperatuko**, ez daki konposizio handiak sortzen. Figurak argitasun plano desberdinetan agertuko dira, ez dute elkarrekin perspektibari dagozkion lege matematikoak gordeko. Perspektiba kubistaren aurreko kontsideratzen da.

- Koloreari dagokionez , **inork baino hobeto erabiliko du zuria kolorea**.

- **Modelatu zehatza, hondo arkitektoniko eza**, gorputzen eraikuntza sinplea, **geometria** argi, garbi eta bizia izango dira erabateko nortasuna emango diotenak bere obrari.

- **Jerez-eko Kartujak pinturak**: *Nicolaus Alberghati, Jeronimo Perez...*

- **Guadalupeko Jeronimoen kronika monastikoa** (Maisu lana

- *Illescas-ko fray Gonzalo.*

- *Cabañuelas aitaren eza.*

- *Kartujoen bazkaria* (Sevilla- Museo Bellas Artes)

- *Bodegoiak*



Fray Gonzalo de Illescas



Kartujoen bazkaria



Natura hila (Prado)



Ur katilua eta larrosa (National Gallery- Londres)

Diego Velazquez (1599 -1660)

- Sevillan jaio zen, aita portugesa eta ama sevillarra izango zuen pintoreak, garai hartako pintura espainiarreko jenio handia eta Artearen historiako pintore garrantzitsuenetako bat da, zalantzarik gabe, Diego de Velazquez.

1) Sevillako aldia

- Oso gazte Herrera Zaharra maisuaren tailerrean hasi zen pintatzen, gero Pacheco (11 urte zituela) delakoarekin beste sei edo zazpi urte pasatuko zituen, **hamazortzi urtekin maisu titulua lortu** arte. Pacheco pintorea oso garrantzitsua izango zen bere bizitzan, bere tailerrean Sevillako giro intelektual eta kultoa ezagutzeaz gain, bertan mugitzen ziren idazle, pintore eta nobleak, aristokrazia eta gortearekin kontaktoan jartzeko aukera emango ziotelako.

- Garai honetako obren ezaugarri nagusia, **Caravaggioren eragin naturalista-tenebrista** nabarmenduko da. **Genero-pintura, bodegoiak eta eszena erlijiosoak** landuko zituen bereziki:

- *Atsoa arrautzak frijitzen* (Eskoziako National Gallery – Edimburgo)

- *Sevillako urtekaria* (Wellington Museum – London)



- Maisu zelarik **jo zuen Madril aldera, gortean lan egin nahian**, eta aintzat hartutakoa lortu zuen, **Felipe IV.ren** faborea jaso eta bere **ganberako pintorea** egin baitzuen.

2) Madrilgo aldia

- Maisu zelarik **jo zuen Madril aldera, gortean lan egin nahian**, eta erregearen (ez da ezagutzen zein izan zen lehenengo erretratu) eta beste hainbat erretratu egin ondoren beteko du bere helburua, **Felipe IV. ren** faborea jaso eta 28 urte zituela **ganberako pintorea** izatera lortzen duenean.

- **Gai erlijioso eta bodegoiak baztertu**, eta **errege eta gorte-gizonen erretratuak egingo ditu** bereziki, hauek modu sinple, soil eta naturaltasunez irudikatuz.



Felipe IV.



3) Hirugarren aldia 1631-49

- Rubensen gomendioak jarraituz, egingo du bere **lehen bidaiara Italiara**, maisu handien koadroak estudiatzeko. Ondoren ardura berriak erakutsiko ditu: **kolorea, biluzia eta airetiko perspektiba**.


- **Mozkorrak** (Prado) 1928 pintatua, bidaiaren ondoren berrikutuko du.
- **Vulcano-ren sutegia** 1929 (Prado)
 - Obra bi hauetan jainko mitologikoak gizartatuta agertzen dira.
 - Tenebrismoa gaituko du.
 - Konposizioei garrantzi handia.



- 1631-1648 artean, Velazquez **erretratugile bikain** bezala finkatuko da:

- **Ez du errekurso eszenografikorik erabiliko**, bakarrik **paisajea**.
- **Sakontasun psikologikoa**, Rembrandt-en antzera, nahiz eta ez ezagutu.
- Errege familia eta gorte-gizonaz aparte, **gortean mugitzen ziren bufoi eta ipotxak** pintatzea gustuko izango du, gortearen ikuspegi gizatiarra emanaz.
 - **Felipe IV. zaldi gainean** (Prado)

- *Baltasar Carlos printzea* (Prado)
- *Olivares Konde-dukea* (Prado)
- *Vallecas-ko umea* (Prado)
- *Calabacillas bufoia* (Prado)
- *Pabillos* (Prado)




- Garai honetan pintatuko zuen baita, **bere koadro historiko bakarra**, nagusitasun espainolaren eta garaipenaren sinboloa izango zena: kontatzen dena Breda hiriaren errendizioa (Holanda) armada espainolaren aurrean hamar hilabeteko setioaren ondoren .

- *Breda-ko errendizioa* (Prado)
 - Konposizio bikaina, garrantzi berezia hondoko paisaia lainotsuak.
- *Marte* (Prado)
 - Espainiaren erlajotasun militarrik metafora: ikur militarrik lurtean.



4) **Bigarren bidaia Italiara (1649-1652)**, erregearen bildumarako arte-obrak erosteko enkarguarekin. Garai honetan margotuko zuen pintura espainolean egingo zen lehenengo emakumezko biluzia.


- *Ispiluaren Venusa* (National Gallery- London)
 - Meninas-en bezala ispilua konposizioaren elementu garrantzitsua.
 - Konposizio bikaina : bi ardatz diagonalak.




- **Italia eta heriotzaren artean** (1660) egingo zituen Velazquez-ek bere sortze-lan perfektuenak:
 - **Koadroak argitu** egin ziren.
 - Giro atmosferikoa tartekatuko zuen objektuen artean: **airetiko perspektiba**.
 - **Aberastasun kromatikoa**.
 - **Pintzelkada askea**, geroz eta lodiera gutxiagokoa.

Italian


- Italian zegoela hainbat obra margotu zituen:
 - *Villa Medici-en paisaiak* (Prado). Bi obra gai berdinarekin.
 - Kanpoko argiaren inpresioa (Inpresionismoaren aitzindari).
 - Pintzelkada arina.
 - *Inocencio X.aren erretratua* (Doria-Pamphili – Erroma)
 - *Juán de Pareja pintorearen erretratua* (Metropolitan Museum – New York)



Villa Medici



Inocencio X.



Juan Pareia

5) Azken garaia (1652-60)

- Madrilera itzuli ondoren bere azken aldia hasiko da, garai honetan egingo ditu **bere obra bikainenak**:

- **Paleta aberastu egingo da.** Grisa eta arrosak, urdin eta zilarrarekin, berde edo karmin tonuzko gortina haundiekin harmonizatzen dute.

- **Pintzelkada askea**, obra moderno eta inpresionista.

- **Konposizio aberatsak**: Meninas, Iruleak...

- **Airetiko perspektiba** : Meninas, Iruleak.



Las Meninas (Prado) (1656-57)

- **Maisu lana**: 12 Gorteko pertsonaien konposizio zoragarria. XVII. mendeko konposizio perfektuena, aurrekoa “Arnolfini senar-emazteak” obran dago.

- Gaia printzipioz arrunta: Velazquez Felipe IV. Eta bere emaztearen erretratu bat egiten ari dela, bere alaba Margarita dama, neskamez eta bi ipotxeekin gelara sartuko da, bertan daudelarik baita gorteko beste kargu batzuk. Uste da lan honekin Velazquez-ek errebindikatu nahi zuela, pintura ez zela bakarrik artisau lan bat, baizik eta goi mailako jarduera intelektuala: artistaren nagusitasuna artisauaren aurrean.

- Argia eta iluntasunaren plano desberdinak, atearren argitasunera bultzatuz: airetiko perspektibaren gailurra suposatuko du.

- Picasso-k obra honen 58 serie egingo zituen.



Picasso



- **Las hilanderas edo Aracne-n fabula** (Prado) (1657)

- Aracne ehule oso trebea, erronka egin zion Ateneari (irulariaren asmatzailea: rueca) ia nor egiten zuen tapiz ederrena. Ateneak Olinpoko jainkoak irudikatzen zituen tapiz bat egin zuen, eta Aracne-k jainko hauen amodio eskandalagarriak agertzen zituen. Ateneak haserre armiarma bihurtu zuen, bizitza guztia iruten egoten kondentatzeko. Horrela umiltasunaren sinboloa bihurtuko du.

- Eszenaren errealismoak desmitifikatu egiten du gai mitologikoa.

- Airetiko perspektiba, figurak distantziaren argitasuna galtzen dute.

- Iruteko makinaren mugimendua oso lortua.




Azken erretratuak

- 1660an hil baino pixkat lehenago bere haur erretratu hoberenak margotuko zituen.
 - *M^a Teresa infanta* (Metropolitan Museum-New York)
 - *Felipe Prospero infantea* (Kunsthistorisches Museum – Viena) (1660)
 - Haur gaixotia, amuletoz betea babesteko.
 - Txakurtxoa, Velazquezen animalien irudikapen delikatuena.
 - *Margarita infanta* (Prado)
 - Mazo pintoreak bukatuko zuen, Velazquez bukatu aurretik hil zelako.

M^a Teresa infanta



Felipe Prospero infantea



Margarita infanta



Murillo (1617 – 1682)

- **Gutziz mirestua bere garaian, gero ordea ahaztua** izan zen El Greco eta Zurbaranen birbilorapenarekin batera; azken urteotan hasi da berriro baloratua izaten. **Gizon baketsu eta ona izan** zen eta **bizimodu lasaia eta egonkorra** eramango zuen. Horrek agian eragina izan zuen bere gaiak aurkezteko orduan erakutsi zuen **eztitasun eta xamurtasunean**

- Gai erlijiosoak eta genero-pintura landuko zituen nagusiki. Gai samur eta maitagarriak izaten ziren, teatraltasuna eta nahasketa konpositiboak alde batera utzita:

- Jesus haurra, Ama Sortzez Garbia (Inmaculada Concepción)
- Genero-pinturan Sevillako klase pobreenetako haurrak.



- Teknika mailan bere **ardura nagusia kolorea** izan zen, alderdi plastikoei garrantzi asko eman gabe.

- Bizitzan bere gai eder eta eztekin lortu zuen arrakasta hain handia izan zen, nekerik gabe errepikatu zituela gai arrakastatsuenak: Familia Sakratua, Artzai Ona, Sortzez Garbia...

Bereziki **orden erlijiosoak eta komentuak izango ziren bezeroak**, nahiz eta noble eta partikularren enkarguak ere jaso.

- *Txorinoaren Familia Sakratua* (Prado)
- *Artzai Ona* (Prado)
- *Ama Sortzez Garbia* (Prado)
- *Haurrak fruta jaten* (Munich-eko Goi Pinakoteka).

